

## **URRETXU-ZUMARRAGA / 'Liburuak plazara' ekimena martxan jarriko da bihar hasita**

### **Urretxu eta Zumarragako liburutegiek antolatuta, liburu banaketak eta tailerrak izango dira datorren astean**

Idoia Luzuriaga

Bihar Zumarraga eta Urretxuko liburutegien eskutik Liburuak Plazara ekimena jarriko da martxan, azkenaldian egin ohi izan duten bezala. Aurten aste osoan zehar luzatuko da eta arduradunen arabera, batez ere hurrei dago zuzenduta. Ekimen honek hiru helburu nagusi ditu: batetik herrietako umeak udal liburutegietara eta liburuetara hurbiltzea; bestetik irakurtzeko ohitura hartzea eta hirugarren helburua irakurketarekin goza dezaten litzateke.

Ekimenak bi atal izango ditu, liburu banaketa eta eskulan tailerra liburu kioskorekin batera. Liburu banaketari dagokionez, aste osoan zehar Zumarraga eta Urretxuko liburutegietan egongo da martxan. Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleei zuzenduta egongo da, eta bazkide txartela aurkeztuz edo une horretan bazkide eginez gero, liburu bat jasoko dute opari. Horretarako ordutegi jakin bat egongo da, 17:00etatik 19:30era.

Eskulan tailerra eta liburu kioskua ostiralean egingo da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ekitaldiekin. Kalebarren-Areizaga plazan izango da, 17:00etatik 20:00etara. Sensibilitatea, estetika zentzumena eta eskuen trebetasuna lantzeko proposamena eskuak erabiliz gozatu eta sortzeko gaitasuna garatuz. Jaimak eta girotzeko musika erabiliko da.

### **Eskulanak**

Tailerrean atzamar txontxongiloak egiteko aukera izango dute haurrek birziklatutako materialarekin. Era berean orrialdeak markatzekoak egingo dituzte. Liburu kioskuan, aldiz, liburutegi ibiltaria kokatuko da. Egurrezko kiosko baten antza du, kolore biziak. Bertan liburu eta ipuinak ikusgai egongo dira eta haurrek ikusi eta irakurri ahal izango dituzte giro atseginean.